

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEN OINARRI ESPEZIFIKOAK**5.LERROA: EZOHIKO JOAN-ETORRIAK****Dirulaguntza-programa honetarako bideratutako zenbatekoa: 20.000 €****AURKIBIDEA**

1.- XEDAPEN OROKORRAK	2
2.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA	2
3.- ERAKUNDE ONURADUNAK	2
4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA	2
5.- AURKEZTUTAKO ESKABIDEAREN AKATSAK ZUZENTZEA	3
6.- ESKABIDEEN ONARPENA	3
7.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK	3
8.- EMATEKO PROZEDURA	4
9.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA	5

1.- XEDAPEN OROKORRAK

Dirulaguntza ekonomikoak ematea Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo egiten diren estatu-mailako edo nazioarteko mailako txapelketetara eta/edo torneotara joateko, Bilboko klubetako kirolarien lehiakortasuna eta prestakuntza hobetzeko, 2026. urtean.

Ez dira diruz lagunduko, Estatutik kanpo egiten diren lehiaketetara egindako joan-etorriak.

2.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Ezohiko joan-etorriak	20.000€
-----------------------	---------

Bilbao Kirolak webgunean dago eskuragarri informazio guztia:
www.bilbaokirolak.eus

3.- ERAKUNDE ONURADUNAK

a) Dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, kirol-erakundeek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- 2026 urtean estatu-mailako edo nazioarteko mailako torneotara eta/edo txapelketetara joatea, Bilboko klubetako kirolarien lehiakortasuna eta prestakuntza hobetzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen eta Federazioen Erregistroan inskribatuta egotea.
- Egoitza soziala Bilbon izatea.
- Federazio- edo eskola-lehiaketa batean inskribatuta egotea.
- IFZ (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) izatea.

b) Erakunde onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Dirulaguntzen Lege Orokorreko 14. artikuluan eta aplikagarriak diren gainerakoetan ezarritakoak.
- Bilbao Kirolak Zerbitzuen Erregelamenduan jasotakoak.

4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 2026ko urriaren 8ra arte (egun hori barne).

5.- AURKEZTUTAKO ESKABIDEAREN AKATSAK ZUZENTZEA

Eskabidea:

- Behar bezala beteta ez badago
- Dokumentazioa falta bada,

Bilbao Kirolakek erakundeari jakinarazpena bidaliko dio eskabideko akatsak zuzentzeko. Horretarako, **10 egun balioduneko epea** izango du, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori betetzen ez bada, Bilbao Kirolakek eskabidea baztertuko du.

6.- ESKABIDEEN ONARPENA

Eskabidea baztertuko da honako kasu hauetan:

- Jarduera-memoria aurkezten ez bada, balorazio-irizpideetan adierazitako eskema eta aldagaiak jarraituz.
- Bilbao Kirolaken web korporatiboan (www.bilbaokirolak.eus) jasotako ildo estrategikoak betetzen ez badira.

7.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak puntu bidezko prorata-sistemaren arabera esleituko dira.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira parte hartzen duten kirolariak Bilbotik ekitaldia egiten den lekura eramatearen kostua, erabiltzen den garraiobidea edozein dela ere, bai eta lekualdatzearen ondoriozko mantentze-kostuak ere.

- Dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira erakundearen izenean. Ez da tiketarik onartuko.
- Hoteleko aparteko gastuak ez dira diruz lagunduko.
- Dirulaguntzaren eremutik kanpo geratuko dira Bilbao Kirolak, SAK beste dirulaguntza batzuen bidez finantzatutako jarduerak.

Eskaera atzera botako da, baldin eta:

- Ez du jardueraren memoria aurkeztu (3. ERANSKINA), puntuazio-irizpideetan adierazitako eskemari eta aldagaiei jarraituz.
- Ez ditu betetzen webgune korporatiboan zehaztutako Bilbao Kirolaken ildo estrategikoak: www.bilbaokirolak.eus

Klub eskatzailearen taldeek parte hartzen duten lehiaketaren eremu geografikoaren arabera baloratuko da. 2026an Bilboko klubetako kirolarien lehiakortasuna eta prestakuntza hobetzeko Estatuko edo nazioarteko txapelketetara joateko aparteko joan-etorriak izango dira.

Mantenu-gastutzat hartuko dira egindako lekualdaketaen ondoriozko egonaldi-gastuak, baldin eta beharrezkoa bada.

Kontuan hartuko dira:

Estatuko edo nazioarteko lehiaketak. Katalogaziorako, lehiaketaren maila kontuan hartuko da Estatuko 3 taldek edo gehiagok edo atzerriko klubek nazioarteko mailan parte hartzen dutenean.

Erakunde batek horrelako lehiaketa batean baino gehiagotan parte hartu badu, batera aurkezteko aukera izango du, jaso beharreko zenbatekoa kalkulatzeko.

		Joan-etorriak	Mantenu gastuak
Ezohiko joan-etorriak	Klubak	0,5 puntu kirolariko joan etorriko km kopuruagatik	10 puntu kirolariko jardunaldi kopuruagatik

Joan-etorriak: 0,5 puntu emango dira kirolari bakoitzeko eta helmugarainoko kilometro bakoitzeko, kontuan hartuta lehiaketan parte hartzeagatik egindako joan-etorria.

Mantenua: 10 puntu emango dira kirolari eta destinoko egonaldi-egun bakoitzeko, ekitaldian parte hartzeagatik.

Kirol-modalitateen arabera kontuan hartu beharreko lizentzien gehieneko kopurua hau da:

KIROLA	Federazio-lizentzia duten pertsonen gehienezko kopurua diruz lagunduta
Saskibaloia, Eskubaloia, Boleibol, Futbol sala	16
Besibol. Rugby y Futbola	20
Beste modalitate batzuk	10

Erakunde bakoitzeko gehienezko zenbatekoa **2.500€-tik beherakoa izango da. 2000 puntuko gutxiengo puntuazioa lortu beharko da dirulaguntza hau jaso ahal izateko.**

8.- EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntza **puntu bidezko prorrata-sistemaren** bidez esleituko da, formula honen arabera:

- a) Eskatzaile guztiek lortutako puntuazioak batuko dira.
- b) Puntuaren balioa kalkulatu da, esleitutako zenbatekoa eskatzaile guztiek lortutako puntuazio osoarekin zatituz.
- c) Eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntza kalkulatu da, lortutako puntuak puntuaren balioarekin biderkatuz.

9.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

- Gastuaren %100 justifikatu beharko da.
- **Joan-etorriak:** Garraio publikoen erabilera edo garraio pribatuen kontratazioa eginez gero, erabileraren kostuen fakturak aurkeztu beharko dira.
- **Mantenua:** Ostatu hartu den establezimenduaren fakturak.
- **Epea:** Bidaia guztiak batera justifikatu beharko dira, azkena egin ondoren.
- Gastuaren azalpena, diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta egon beharko du.
- Denboraldiko diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Aurkeztutako fakturen ordainketen frogagiriak.
- Inprimaki ofiziala behar bezala beteta (FAKTUREN LABURPEN-ZERRENDA — 4. ERANSKINA).
- Aurkezteko epea: 2 hilabete, dirulaguntza ordaindu den egunetik aurrera (dirulaguntza jasotzean jarduera amaituta bada).
- Dokumentazioa egiaztatzea eta akatsak zuzentzea
Bilbao Kirolakek aurkeztutako dokumentazioa zuzena eta osatua den egiaztatuko du. Hala ez bada, idazki baten bidez:
 - Akatsak zuzentzeko edo falta den dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.
 - Adieraziko du hori egin ezean eskabidea baztertuko dela.

Erakundeak **10 egun natural** izango ditu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa aurkezteko.

- Erakundearen betebeharra
Eskatutako dirulaguntzaren xede den joan-etorria gauzatu beharko du. Edozein aldaketa izanez gero, aurretik jakinarazi beharko dio Bilbao Kirolaki.
- Zehapena
Erakundeak jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli beharko ditu honako kasu hauetan:
 - Justifikaziorik aurkezten ez badu.
 - Justifikazioa ez bada nahikoa.